



ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA 2016 Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa

ORDEZKOEN ZERRENDETAN SARTZEA OPOSIZIO- ALDIKO PROBAK GAINDITU DUTENENTZAT

Data: 2016ko abuztuaren 8a

Hautaketa-prozeduraren probak gainditu dituzten baina hautatuak izan ez diren izangaiak irakasleen ordezkapenatarako izangaien zerrendan sartu ahal izango dira; probak gainditu duten espezialitatean izango da, betiere, lehendik espezialitateko zerrendan ez bazeuden.

Ondorio horietarako, behin dagokion hautaketa-prozeduratik datozen praktikaldiko funtzionarioen izendapen argitaratu denean, Langileak Kudeatzeko zuzendariak **deialdi espezifiko bat egingo du** pertsona horiek sartzeko aukera **balia** dezaten (ez da prozesu automatikoa; eskatu behar da prozesua deitzen denean).

Deialdiaren informazioa argitaratuko da Interneteko helbide hauetan: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus> eta <http://www.irakasle.eus>, **2016ko irailean/urrian izango da.**

Pertsona horiek aurkeztu beharko dituzte hautaketa-prozeduran eskatutako betekizuna orokorrak eta berariazko betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen dituzten egiaztagirak; bai eta honako hauek aukeratu beharko dituzte horretarako ezarriko den epean: eman nahi duten lurraldea, lanaldi-mota eta eman nahi duten hizkuntza-eskakizuna.

Aukera horretaz baliatzen direnek zerrenda ordenatu bat sortuko dute hautaketa-prozeduran lortutako amaierako puntuazioaren arabera.

Geroago, urtero egiten den ordezkapenatarako izangaien zerrendaren birbaremazioan, zerrenda diferentziatuko izangaiak (hautaketa-prozeduraren bitartez sartu direnak) zerrenda orokorrean bateratuko dira.